



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EUSKAL KULTUR ONDAREAREN LEGE AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Aurkibidea:

I. Aurrekariak eta KEAEren eskumena	1
II. Proposatutako araudiaren azterketa, lehiaren ikuspegitik	3
1. Kontuan hartzekoak	3
2. Aurreproiektutik ondorioztatzen diren lehia-murrizketen azterketa xehea...	5
A. Kultur ondasun higigarriak	5
B. Ondare arkeologiko eta paleontologikoa.....	7
III. ONDORIOAK	9

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Euskal Kultur Ondareari buruzko txosten hau ematea erabaki du 2015eko abuztuaren 17ko bileran.

I. Aurrekariak eta LEAren eskumena

1. 2015eko uztailaren 23an, Euskal Kultur Ondarearen Lege Aurreproiektua (aurrerantzean, "Aurreproiektua") bidali zitzaion LEA Lehiaren Euskal Agentziari, egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak egin zitzaion. Bereziki eskatu zitzaion Aurreproiektuaren 56. eta 63. artikulua aztertzeko.

2. Legeak erakunde honi lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau¹.

Eskumen horien helburua Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea da. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditugu, eta, horrelako neurrien

¹ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk., 3.3 eta 10.n artikulua).



esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, arau juridikoak proposatzeko eginkizunaren eremuan.

LEAk legez dituen funtzioen arabera, xedapen orokorrak izapidetzeko prozeduran –oraingo honetan bezala– komenigarritzat jotzen da bere txostena ematea Aholkularitza Batzorde Juridikoaren irizpenaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenaren aurre-aurretik. Horri esker, lege-aurreproiektua izapidetzeko memoria osaturik egon baitaiteke eta, horrela, entzunaldi eta jendaurreko informazioaren izapideetan emandako erantzunak balioetsi baitaitezke.

3. Aurreproiektuaren helburu nagusia, zioen adierazpenean ageri denez, kultur ondarearen kudeaketa integrala bermatzea da, hau da, alde batetik, ondarea identifikatu, dokumentatu, ikertu, kontserbatu eta babestuko duen kudeaketa, baina horrekin batera haren transmisioa, sustapena eta balio-nabarmentzea bermatzeko konpromisoa hartuko duena. Ondarea babesteko eta sustatzeko eredu eraginkorrago bat ezarri nahi du, oraingo eta etorkizuneko belaunaldienganako transmisioa eta gozamina segurtatuz. Horretaz gainera, liburutegi, artxibo eta museoen sistemetan gure ordenamendu juridikoan egon diren aldaketetara egokituta egon nahi du, arlo horiek lege-araudi berezkoa jaso baitute². Hori lortzeko, aldatu egiten du –gutziz indargabetuz– indarrean dagoen Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea³.

² Prozedura bera erabili dute beste zenbait autonomia-erkidegok, esparrua arautzeko. Aipa dezagun tokian tokiko araudia, azterketa honetan konparazio-parametro gisa erabiliko baitira: **Katalunia:** 9/2013 Legea, irailaren 30ekoa, Kataluniako Kultur Ondarearena (1993ko urriaren 11ko Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofiziala, 1807 zk.); **Valentzia:** 4/1998 Legea, ekainaren 11koa, Ondare Historikoarena (1998ko uztailaren 22ko BOE, 174 zk.); **Galizia:** 8/1995 Legea, urriaren 30ekoa, Galiziako Kultur Ondarearena (1995eko azaroaren 8ko Galiziako Aldizkari Ofiziala, 214 zk.); **Gaztela eta Leon:** 12/2002 Legea, Gaztela eta Leongo Kultur Ondarearena (2002ko uztailaren 19ko Gaztela eta Leongo Aldizkari Ofiziala, 139 zk.); **Aragoi:** 3/1999 Legea, martxoaren 10ekoa, Aragoiko Kultur Ondarearena (1999ko martxoaren 29ko Aragoiko Aldizkari Ofiziala, 36 zk.); **Gaztela-Mantxa:** 4/2013 Legea, maiatzaren 16koa, Gaztela-Mantxako Kultur Ondarearena (2013ko maiatzaren 24ko Gaztela-Mantxako Aldizkari Ofiziala, 100 zk.); **Asturiasko Printzerria:** 1/2001 Legea, martxoaren 6koa (2001eko martxoaren 30eko Asturiasko Printzerriko Aldizkari Ofiziala, 75 zk.); **Kantabria:** 11/1998 Legea, urriaren 13koa, Kantabriako Kultur Ondarearena (1998ko abenduaren 2ko Kantabriako Aldizkari Ofiziala, 240 zk.); **Extremadura:** 2/1999 Legea, martxoaren 29koa, Extremadurako Historia eta Kultur Ondarearena (1999ko maiatzaren 22ko Extremadurako Aldizkari Ofiziala, 59 zk.); **Murtziako Eskualdea:** 4/2007 Legea, martxoaren 16koa, Murtziako Eskualdeko Kultur Ondarearena (2007ko apirilaren 12ko Murtziako Eskualdeko Aldizkari Ofiziala, 83 zk.); **Errioxa:** 7/2004 Legea, urriaren 18koa, Errioxako Kultur, Historia eta Arte Ondarearena (2004ko urriaren 23ko Errioxako Aldizkari Ofiziala, 136 zk.); **Nafarroako Foru Komunitatea:** 14/2005 Legea, azaroaren 22koa, Nafarroako Kultur Ondarearena (2005eko azaroaren 25eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 141 zk.).



II. Proposatutako araudiaren azterketa, lehiaren ikuspegitik

4. Aurreproiektuaren xedea Euskal Kultur Ondarea izenekoaren babesa, kontserbazioa eta transmisioa segurtatzeko mekanismoak ezartzea denez, txosten honen bitartez aztertu nahi dugu ea mekanismo horien ondorioz murrizketarik sor litezkeen ondare-mota horren eremuan zerbitzuak ematen dituzten enpresen arteko lehia.

1. Kontuan hartzekoak

5. Lehiaren murrizketak, oro har, sarrerako barrera moduan agertu ohi dira, edo jarduteko baldintza moduan; gainera, disfuntzioak sortzen dituzte merkatuetan, eta, ondorioz, pizgarri gutxi izaten dira zerbitzuak hobetzeko eta prezioak jaisteko. Sartzeko aukerak murrizteak berekin dakar, ondorio ekonomiko gisara, merkatuan zerbitzu profesionalen eskaintza ere murriztea, bai eta bertan jadanik jardunean ari diren eragile ekonomikoen arteko lehia murriztea ere. Jarduteko murrizketak mugatu egiten du profesionalek lehiatzeko duten benetako gaitasuna eta elkarren artean desberdintzekoa, eta koordinazio horizontala indartu dezake.

Merkatuan akatsik ez dagoenean, administrazioak jarduera-murrizketak sortuz egiten dituen esku-hartzeak kaltegarriak izaten dira interes orokorrari begira. Horregatik, administrazioak aukera eman behar du eskaintza ezberdinak egon daitezzen, bai kalitatearen aldetik, bai prezio eta zerbitzuaren gainerako baldintzen aldetik ere; modu horretan, erabiltzaileak askatasun osoz jardun ahal izango du, erabakimena beregainki gauzatzuz³.

6. Europar Batasunaren eremuan, kontuan hartuta erregulazioaren eraginpean EAEn helbideratuta dauden edo nagusiki bertan zerbitzuak ematen dituzten subjektuak daudela, eta EBko estatu kideetako nazionalak izan daitezkeela, zerbitzuak aske emateko erregulazioak barne-erregulazioa baldintzatu du aldi berean⁴.

³ Hori dela eta, LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Administrazio publikoentzako gomendioak, merkatuak era efizienteago batez eta lehiaren aldekoago batez arautzeko.* Kontsultagai dago CNMCren weborrian: http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias_y_recomendaciones/recomendaciones.pdf (txosten honetan aipatzen diren weborri guztien azken kontsulta-eguna 2015eko abuztuaren 6a da).

⁴ Ikusi Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 26. artikulua (barne-merkatua), 49.etik 55.era (ezarpena), eta 56.etik 62.era (zerbitzuak), eta barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua (2006ko abenduaren 27ko EBAO, L 376), 36/68 orr.



7. Merkatuko eragileen askatasuna murrizten duen esku-hartze oro aztertzeko hiru irizpide erabili behar dira:⁵

- **Beharrezkotasunak** esan nahi du justifikazioa arrazoi hauetakoren batean datzala: ordena, segurtasun eta osasun publikoarekin edo ingurumena babestearekin lotutako arrazoiak, edo baliabide naturalen eskasiaren ondorioz edo arrazoi tekniko zalantzagabeen ondorioz merkatuko eragile ekonomikoen kopurua murrizten denean.
- **Proporzionaltasunak** esan nahi murrizketa dela tresnarik onena bilatzen den helburua lortu ahal izateko, ez baitago emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen hori baino murrizketa-maila leunagorik duen neurririk.
- **Diskriminaziorik eza**, nazionalitatea dela-eta edo enpresaren kokapen edo helbide soziala dela-eta.

Beraz, lege batek merkaturako sarbidea murrizten dituzten neurriak ezartzen dituenean, modu arrazoituan egiaztatu beharko du beharrezkotasun, proporzionaltasun eta diskriminazio-ezaren baldintzak betetzen dituela.

Ildo horretan, Omnibus Legea izenekoak aldaketa batzuk sartu zituen erregulazioan, zerbitzuen liberalizazioari begira⁶. Aldaketa horien artean, honako hau: 30/1992 Legearen 39.bis artikulua, honako betebeharrak hauek ezartzen dizkiena administrazio publikoei, lehia murriztuko duen neurriren bat edo zerbitzuak ematerakoan barrera bat dakarren neurriren aplikatu behar dutenean⁷:

- eskubideak gutxien murrizten dituen neurria hautatzea,
- haien beharra interes publikoaren izenean arrazoitzea, eta
- haiek egokitasuna justifikatzea, bilatzen diren helburuak lortzeari begira, inola ere tratatu diskriminatzailearik egon gabe.

Ekonomia iraunkorraren Legeak, bere aldetik, enpresen arteko lehia bultzatzeko eskatzen die administrazio publikoei, eta, horretarako, –legeak dioenez– ondasun eta zerbitzuen merkatuetan lehia eta efizientzia indartuko dituzten eta baliabide produktiboen esleipena erraztu eta produktibitatea hobetuko duten arau-esparruak erabiltzeko esaten du⁸. Agindu horren indarrez,

⁵ Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Estatuko Legearen 5. artikulua (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283 zk.). Merkatu-batasuna bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak emandako idazketa (2013ko abenduaren 10eko BOE, 295 zk.).

⁶ 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, hainbat lege egokitzen dituen *Zerbitzu-sarbide librea izateari eta zerbitzu horiek erabiltzeari buruzko Legea* (2009ko abenduaren 23ko BOE, 308. zk.).

⁷ 30/1992 Estatuko Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (1992ko azaroaren 27ko BOE, 285 zk.).

⁸ 2/2011 Estatuko Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia iraunkorrarena (2011ko martxoaren 5eko BOE, 55. zk.).



administrazio publikoak behartuta daude beren araugintza-ekimenak doitzera beharrizanaren printzipiora, proportzionaltasunarenera, eta segurtasun juridikoaren, gardentasun, eskuragarritasun, sinpletasun eta eraginkortasunarena.

Azkenik, Merkatu-batasuna bermatzeko Legearen funtsa zerean datza: eragile ekonomikoen zirkulazio askean eta haien ezarpenean, ondasun eta zerbitzuen zirkulazio askean –inolako agintaritzak ezin diolarik oztoporik jarri, ez zuzenean ez zeharka–, eta jarduera ekonomikoa gauatzeko oinarrizko baldintzen berdintasunean⁹.

Legez ezarrita dauden merkatu-baldintzetan gauzatzen diren jarduera ekonomikoen sarbidea da lege horren aplikazio-eremua. Legeak dioenez, eragile ekonomiko guztiek eskubide berak izango dituzte, eta ez da haien artean diskriminaziorik egongo, bizilekua edo kokatze-lekua dela medio.

Haren argitan, jarduera ekonomikoak lortzeari edo gauzatzeari buruzko xedapen orokor, administrazio-jardun edo kalitate-arau bakar batek ere ezin izango du eduki baldintzarik edo betekizunik, ondorio gisa (zuzena edo zeharkakoa) eragile ekonomikoaren kokatzea edo bizilekua dela medio diskriminazioa dakarrenik.

2. Aurreproiektutik ondorioztatzen diren lehia-murrizketen azterketa xehea

A. Kultur ondasun higigarriak

8. Aurreproiektuaren 56. artikulua dioenez, "Euskal Kultur Ondarearen Erregistroan inskribatutako ondasun higigarrien merkataritzan eskuarki diharduten pertsona fisikoek edo erakundeek erregistro-liburu bat formalizatu beharko dute, ondasun horien gainean egiten dituzten eskualdaketak jaso beharko dituen".

Pertsona eta erakunde horiek "erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute Eusko Jaurlaritzan kultur ondarearen eskumena duen sailean, zeinean adierazi beharko baitute aurreko paragrafoan aurreikusten den eskakizuna betetzen dutela eta jarduerak irauten duen bitartean transakzioen erregistro-liburua eguneraturik edukitzeko hitz ematen dutela".

Adierazpen hori administrazio publikoan aurkezteak gaikuntza ematen die pertsona fisiko edo erakunde horiei egun horretatik jarduera hori modu mugagabean egiteko.

⁹ 20/2013 Estatuko Legea, abenduaren 9koa, Merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 10eko BOE, 296 zk.).



Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztearen ondorioz, inskribatuta geratuko da ondasunen merkataritzan eskuarki diharduten enpresen fitxategi batean.

9. Aurreproiektuaren hasierako testuak administrazio-erregistro bat sortzea aipatzen zuen, kultur ondasun higigarrien transakzioan eskuarki diharduten pertsona eta erakundeak inskribatzeko. Baina proposamena egiten duen saileko Aholkularitza Juridikoaren txostenaren ostean, kendu egin da administrazio-erregistroa sortzeko pasartea eta, haren ordeztan, enpresa horiek bilduko lituzkeen fitxategi bat jarri da (LEAren esku dagoen informazioaren argitan, ez dugu ulertzen zer alde dagoen bi horien artean).

Ez Aurreproiektuaren zioen adierazpenean ezta justifikazio-memorian ere ez da inon ikusten zein den kultur ondasun higigarrien transakzioan eskuarki diharduten pertsona eta erakundeak fitxategi edo erregistro batean inskribatzearen helburua: zer kontrol ezarriko zaizkien edo zein diren erregistroan sartzeko betekizunak.

Justifikazio hori gabe, ezin da baloraziorik egin, eta, horrenbestez, ez da ulertzen haren beharrezkotasuna, proportzionaltasuna eta diskriminazio-eza. Azpimarratu beharra dago beste autonomia-legedietan ez dela eskatzen erregistro batean inskribatuta egotea aipaturiko transakzioak egiteko¹⁰.

10. Bestalde, kultur ondasun higigarrien merkataritzan eskuarki diharduten eragile ekonomikoek liburu espezifikoko bat eduki behar dutela ezartzen da, zeinean kultur ondasun higigarri horien transakzioak islatuko diren. Liburuan, transakzio gai den ondasunaren identifikazioko datuak eta argazkia agertu beharko dira, gutxienez, bai eta transakzio horretan esku hartzen duten alderdien identifikazioa ere.

Transakzio gai diren ondasunen izaera berezia dela eta –Euskadiko Kultur Ondarearen ondasun higigarriak–, eta Aurreproiektuak adierazten duen helburua ondasun horiek babestea eta kontserbatzea denez, transakzioen erregistro bat izateko beharra justifikatuta dago¹¹.

Kontuan hartuta transakzio gai diren ondasunen berezko izaera (higigarriak), Euskal Kultur Ondasunaren kalifikazioa dutela eta, gainera, horrelako ondasunek zer interes duten Autonomia Erkidegoarentzat, esan daiteke aipaturiko exijentzia hori proportzionala dela.

¹⁰ Gaztela-Leon, Aragoi, Asturiasko Printzerri, Kantabria eta Murtziako autonomia-erkidegoetako kultur ondasunei buruzko legeetan ez da erregistrorik edo administrazio-fitxategirik jasotzen. Gainerako erkidegoek erregistroak dituzte.

¹¹ Beren kultur ondasuna arautu duten autonomia-erkidego guztiek ezarri dute kultur ondasun higigarrien transakzioak erregistratzeko liburu bat izateko beharra.



B. Ondare arkeologiko eta paleontologikoa

11. Aurreproiektuaren 63. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko – lurrekoak edo urpekoak izan –, kasuan kasuko foru-aldundiaren alde aurreko baimena beharko da.

Baimenaren titularrak pertsona fisiko bat izan beharko du, eta baimentzen diren jarduera arkeologikoen edo paleontologikoen zuzendaritza bere gain hartzeko behar besteko titulazio eta esperientzia duela egiaztatu beharko du.

Esku-hartzearen eremuaren garai historikoetara egokitzen den prestakuntza egiaztatzen dutenei bakarrik emango zaizkie jarduera arkeologikoen zuzendaritzarako baimenak.

Eremu paleontologiko batean ikerketako edozein landa-lanetan, ikertu nahi den aztarnategiaren ezaugarrietarako egokia den titulazio akademikoa exijituko da. Nolanahi ere, ziurtatuta geratu beharko da paleontologo-lanetan edo lekuko tipologiarekin bat datozen natura-zientzien adarretan dagoen prestakuntza.

12. Hasteko, zehaztu beharreko lehenengo puntua da horrelako jarduerak lotuago daudela ikerkuntzarekin, zientziarekin eta kulturarekin eta babes-lanarekin, zerbitzu ekonomikoak ematearekin baino.

Hori dela eta, banan-banan egiaztatu beharko litzateke lehia erregulatzen duten arauen aplikazioa. Zenbait ohar egin nahi ditugu, hala eta guztiz ere, lehiaren araberako irizpideen ikuspegitik merkatu bat dagoela egiaztatzen den kasuetarako.

13. Lehenik eta behin, egokitzat jo daitekeen **titulazioaren zehaztugabetasuna** dela eta, Aurreproiektuaren justifikazio-memoriak dio nahita utzi dela xedapen hori zabalik, ikusirik gaur egungo titulazioak askotarikoak eta aldakorak direla. Horregatik erabaki da arrazoizkoena dela murrizketarik ez egitea titulazioetan, berez indarrean luzaro irauteko jitea duen lege-arau batean, zeren eta ez baitago jakiterik titulaziook geroko geroan baliorik galdu edo desagertuko ote diren¹². Justifikazio-memoriak, hurrena, esaten du egokiagoa izango litzatekeela auzi hau argitzea baimenak ematen diren unean; alegia, kasuan kasuko foru-aldundiaren esku geldituko litzateke.

¹² Lege Aurreproiektua izapidetzean emandako memoria, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostenaren ostean Kultur Ondarearen Lege Aurreproiektuaren testuan egindako aldaketak justifikatzeari buruz.



Hori dela eta, esan behar dugu ezen, nahiz eta ados gauden proposamena egiten duen sailarekin dioenean beharrezkoa dela luzaroan iraungo duen arau bat sortzea, prestakuntza-modu ezberdinak eta, are, gaur egun existitzen ez direnak onartuko dituen, aldez aurretik zehaztu beharko litzatekeela (lege honetan edo legea garatzen duten arauetan) zer gaitasun egiaztatu behar diren baimena lortu ahal izateko, bestela segurtasun juridikoaren gabezia hedatzen ariko baikinake, eta hori jarduera hauetara jo nahi dutenen kalterako izango litzateke.

14. Baimena eskuratzeko, jarduera arkeologiko eta paleontologikoetako lanen zuzendaritza bere gain hartzeko behar besteko titulazio eta esperientzia egiaztatu beharko da (Aurreproiektuaren 63.2 artikulua)¹³.

Hori dela eta, esan behar da ezen, zerbitzu ekonomikoak emateaz ari garenean, esperientzia exijitzea merkatuaren sartzeko barreratzat har daitekeela, zeren eta, behin titulazioaren bitartez gaitasun teknikoa egiaztatuz gero, oro har ez baita onartzen bestelako betekizunak jartzea.

Gure kasuan, kultur aztarnategi edo ondasun bati eragin diezaioketen ikerkuntza-jarduerez ari garenez gero, exijentzia hori justifikatuta egon daiteke.

Legearen zehaztugabetasunaren aurrean, gogoratu beharra dago ezen, esperientzia exijitzearekin loturiko edonolako betekizunik ezarriz gero, betekizun hori beharrezkoa, proportzionala eta ez-diskriminatzailea dela justifikatu behar dela.

15. Gauza bera esan behar da 63.5 artikulua arabera jarduera baten zuzendariak egiaztatu behar duen betekizunaz (esku-hartzearen eremuaren **garaietara egokitzen den prestakuntza** egiaztatzea), eta 63.6 artikulua arabera exijitu beharreko titulazio akademikoaz (eremu paleontologiko batean ikerketako edozein landa-lanetan, ikertu nahi den aztarnategiaren ezaugarrietarako egokia den titulazio akademikoa)¹⁴.

16. Azken batean, planteatu behar da Aurreproiektuaren **idazkerak bide eman behar duela pertsona juridiko bati** edo gehiagori baimena emateko, baldin

¹³ Inongo autonomia-erkidegotan ez da legez eskatzen esperientziaren betebeharra jarduera arkeologiko eta paleontologikoak egiteko baimena jasotzeko.

¹⁴ Proposamena egin duen sailaren beraren txosten juridikoak dioenez, zeina Lege Aurreproiektua lantzeko izapideetan eman baita, araua sustatzen duen zuzendaritza gehiegi zentratzen da pertsonen titulazioan eta esperientzian, eta hortik landa ez du beste gidalerro edo betekizunik ezartzen.



eta titulazio egokiari buruzko baldintzak betetzen dituen pertsona fisiko bat baldin badute¹⁵.

Bestela, pertsona juridikoenganako bidegabeko diskriminazioa egongo litzateke, administrazio-baimenaren subjektu gisa.

17. Aurreproiektuaren 65. artikulua jarduera arkeologiko eta paleontologikoak zuzentzeko **baimena ukatzea eta kentzea** arautzen ditu.

Lehenengo zenbakian dio foru-aldundiek ukatu egin beharko dituztela jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimenak, baldin eta eskatzaileak gaikuntza profesional egokirik egiaztatzen ez badu.

Bigarren zenbakian dio ez dela baimenik emango Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko, baldin eta egiaztatzen bada eskatzailea honako legezko ez-betetzeren bat egin duela:

- a) Baimendu gabeko jarduera arkeologikoak edo paleontologikoak egitea edo emandako baimenetako baldintzak bete gabe egitea.
- b) Material arkeologikoak edo paleontologikoak aurkeztu eta gordailutu ez izana lege honetan eta hura garatzen dituzten arauak ezarritako moduan eta epeen barruan.
- c) Baimendutako jarduera arkeologikoen eta paleontologikoen behin-behineko edo behin betiko txostenak ez aurkeztea.

Arrazoi horiengatik baimena ukatzen bada, jarduera arkeologikoak edo paleontologikoetarako baimenaren onuradun izateko aukera *sine die* desgaitzea ekarri ahal izango luke, zeren eta arrazoi horietakoren batean ez baita epe jakinik ezartzen. Horregatik, araua argitzea gomendatzen dugu, denbora-epeak zehaztu aldera.

III. ONDORIOAK

LEHENA: Kultur ondasun higigarriak direla eta, ez Aurreproiektuaren zioen adierazpenean ezta justifikazio-memorian ere ez da inon ikusten zein den kultur ondasun higigarrien transakzioan jardun nahi duten enpresak fitxategi edo erregistro batean inskribatzearen helburua. Justifikazio hori gabe, ezin da baloraziorik egin, eta, horrenbestez, ez da segitzen haren beharrezkotasuna, proportzionaltasuna eta diskriminazio-eza.

¹⁵ Proposamena egin duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aholkularitza juridikoaren txostenak berak dioenez, zeina Lege Aurreproiektua lantzeko izapideetan eman baita, ez dago justifikaziorik baimena bakarrik pertsona fisiko batera mugatzeko, lantaldeak ere izan baitaitezke jarduerak garatzen dituztenak.



BIGARRENA: Euskadiko Kultur Ondarearen barruan dauden ondasun higigarrien izaera berezia dela eta, justifikatuta daude haiei eragiten dieten transakzioen erregistro bat izateko beharrezkotasuna eta proportzionaltasuna.

HIRUGARRENA: Ondare arkeologiko eta paleontologikoarekin loturiko jarduerak direla eta, azpimarratu behar da lotuago daudela ikerkuntzarekin, zientziarekin eta kulturarekin eta babes-lanarekin, zerbitzu ekonomikoak ematearekin baino. Hala eta guztiz ere, baimena lortzeko exigentzia gisa garai historiko jakin batera egokitzen den esperientzia eta prestakuntza eskatzea kasuan-kasuan justifikatu beharko da, bilatzen den helburuarekiko neurri beharrezko eta proportzional gisa, eta ez dira diskriminatzaileak izango. Exigentzia horiek guztiak, gainera, ahalik eta zehatzenak izango dira, eta gardenak eta aurreikusteko modukoak izango dira eskatzaileentzat.

LAUGARRENA: Aurreproiektuaren idazkerak baimenak eskuratzeko bidea eman behar die baldintzak bete dituzten pertsona juridiko eta pertsona fisikoen taldeei.

BOSGARRENA: Jarduera arkeologiko eta paleontologikoak zuzentzeko baimena ukatzen denean, zehaztu egin behar da noiz arte egongo diren indarrean ez-betetzeen ondorio juridikoak.